



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

**NAIA RUIZ DE EGUINO GARCIA ECHAVE, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
IBARRAKO UDALAREN IDAZKARIA NAIZEN HONEK HAUXE
ZIURTATZEN DUT:**

2019ko abenduaren 19an buruturiko Ibarra Udabatzak, ez-ohiko bilkuran, honako erabakia hartu zuela:

2.- ALKATEAK PROPOSATZEN DITUEN GAIAK UDALBATZAK ONAR DITZAN

2.1- 2020 URTERAKO ARAUDI PLANAREN ONARPENA

Ikusita, legeak agintzen duenari jarraiki 2020 urtean Ibarra Udalak onartuko dituen araudien plana egitea ezinbestekoa dela.

Ikusita araudi plana teknikari denek landutako gaia dela (bakoitzaren batzordean erabakitakoaren arabera ezartzen baita arau berrien sorrera).

2019ko abenduaren 16an Alkateak egindako proposamena aintzat harturik.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea 2020 urterako Ibarra Udaleko Araudi Plana (II ERANSKINA)

BIGARRENA: Erabaki hau GAOan eta Ibarra Udaleko web orrialdean argitaratu.

Eta honela jasota gera dadin eta bidezko diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egin dut lehendadariak ikus-onetsita, Ibarra, bi mila eta hemeretzi abenduaren 20an



*Ibarra Udaleko Idazkaria
Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave*



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

